

OINARRIAK EKAINAREN 13-14KO KANPAINA

“ERDU TE INVITO”

Bidea sentsibilitatez egiteko boluntario konpromisoa

Ikasturteko azken sentsibilizazio une hau COVID-19aren osasun eta gizarte krisiak markatua dago, noski. Boluntarioen lanari dagokionez, gure konpromisoaren doakotasuna nabarmendu nahi dugu, orain inoiz baino gehiago.

Dohaintza gara, batez ere. Benedicto XVI.ak esan bezala, “Dohainerako eginak gara”¹ (Caritas in veritate, n. 34). Dohain hori doan eman zaigu, guk xumetasunez jaso eta justiziaren zerbitzura jartzen dugu. Eman eta jasotzeko daukagun jarreraren adierazpen nagusia da.

Mundu mailako pandemia: Aldaketarako aukera

Koronabirusak sortutako mundu mailako pandemiaren ondorioz, duela hilabete batzuk imajinatu ezingo genukeen moduan bizi behar izan dugu. Eguneroko ohiturak, harremanak lantzeko moduak, gure emozioen kudeaketak... denak gainezka egin digu. Gaixotasuna, senideen heriotza, isolamendua... ziurgabetasun ekonomikoa eta laborala, oinarritzko baliabiderik eskura ez izatea, lana galtzea, ABEEEak. Gizarte hauskor eta babesgabeagoa daukagu orain, eta bidaiarria ziurgabetasunez betea dago oraindik.

Hala ere, hauskortasun horretatik milaka karitate keinu ikusi ditugu erretzen, trukean ezer itxaron gabe. Sinesmen, lanbide, pentsamendu eta herrialde guztietako pertsonak mobilizatu egin dira eta mehatxupean, zauriturik egon den gizateriaren zerbitzura jarri dira. Esperientzia honek sufrimendu eta minaren aurrean erreakzionatzera eramán gaitu, eta gure nortasuna erreskatatu dugu. Argi geratu da ondo dakigula nondik gatozen. Batzuetan ahaztu egiten zaigu eta geurekoikeriara garamatza, baina une hauetan komunitate izaera berreskuratu dugu, denon ongizatea lehenetsi dugu, hori baita izakion ezaugarrietako bat: Bizitzaren babesa eta defentsa.

¹ Benedicto XVI, cfr. *Caritas in veritate*, 34

ALKARTASUNA BETI ZABALIK LA SOLIDARIDAD NO CIERRA



Eliza gara, kristau komunitatea gara, eta gure lana hauskortasun babestea da, elkartasuna sustatzea, eta izan dugun erreakzio hau munduan egoteko eta izateko modu berria izan dadin lortzea, ez dadila hemen geratu.

Boluntarioen ahalmena

Erronka handiak ditugu orain aurrean, eta ezin diegu geuk bakarrik heldu, ez norbanako moduan, ezta erakunde bakoitzak bere aldetik ere. Elkartu egin behar gara, bizi-egoera ezberdinak eta pertsonentzako aukera berriak marraztu, eta geure zauriak sendatzeko eremu partekatuak sortu.

Corpus Christi egunaren harira, gotzainek mezu bat bidali dute:

“Mundua eraldatzeko lan hau ezin dugu bakarrik burutu. Denon ekarpena behar dugu, batez ere, agintari politiko, zibil, ekonomiko eta erlijiosoena. Pazientzia handiko pertsonak behar ditugu, gure gizarte ahulenengan pentsatzen dutenak, akordioak lortu eta horiek aplikatzeko borondate sendoa dutenak.”

Caritaseko kide garen guztiok, boluntario zein teknikariok, komunitate eta parrokia taldeok, proiektuetan lan egiten dugunok, laguntza eskatu edo eskaintzera datozenak, dohaintzak egiten dituztenak, gure lana aitortzen dutenak eta gizartea beste era batera eraikitzeke gonbidapena bere egiten dutenak, denok elkartu behar dugu, eta gure bizi-estiloa aldatzeko ahalmena eta aukera izango dugu.

Jesussek bere izenez deitzen dio gutako bakoitzari, eta ziurgabetasun egun hauetan bidea egitera gonbidatzen gaitu. Ez digu gurutzea aurreztu nahi, baina zentzua eman diezaiozun nahi du, eta berau besarkatu eta gure bizitzetan integratzeko eskatzen digu.

Bide hau ez dugu zertan bakarrik egin; horrela zailagoa izango da. Berarekin eta beste batzuekin ibiltzera gonbidatzen gaitu, Emaús herrikoekin, zama arinago izateko (cf. Lc 24 13-35): Harrera egin eta entzun egiten duten komunitateak, otoitz egiten duten eta ospatu egiten duten komunitateak saretuz, elkarrekin egonez, elkar sendatu eta pertsona hauskorreneri ongi etorria emateko. Bidegabekeriak salatu eta horien aurrean ekintzara pasatzen diren komunitateak. Komunitate inklusiboak, harrera-eremuak, bakoitza etxean bezala sentitu daitekeen lekuak. Keinu xumeak, egunerokoak, doakoak, maitasun eta itxaropenez betetako keinuak burutzen dituzten komunitateak, bizitza berreraikitzeke ahalmenarekin.

Gonbidapena

Jainko biziaren lekuko izatera, Erreinuaren aktibista izatera gonbidatu nahi zaitugu. Aktibista izatea kausa batean aktiboki parte hartzea da, geure buruaz harago, besteengan pentsatzea, denon ongizatea kausa propio bihurtzea.

Une honetan ezin gara talde handitan elkartu, baina karitatearen aktibista izan gaitzke, hau da, sufritzen ari diren pertsonen aldeko konpromisoa eta gure maitasuna erakusten duten keinu xumeak egiten dituzten pertsonak izan, naturaren eta ingurumenaren alde lan egin, justizia eta duintasun defendatu, eta pertsona guztiok oinarritzko eskubideak bermatuta izan ditzagun lan egin.

Aktibista izatea, azken finean, bizitza elkartasun eta gizatasunez bizitzea da, eta bizitza Jesusen estiloan bizitzea: Pertsona babesgabeenen alde lan eginez.

Izan aktibista eta gonbidatu beste pertsona batzuk ere itxaropenaren korronte berri horretan murgiltzera.

Zer egin dezakezu?

- 1. Bilatu zure barruan.** Zure borondatea aurkitzen duzunean, ez gorde zuretzako. Partekatu, begiratu ea beste norbaitek daukan antzeko ametsen bat, eta ikusi ea zerbait egin dezakezuen hori eraldatu eta gure mundua hobetzeko.
- 2. Larrialdi klimatikoa:** Ekin orain! Aldaketaren parte zara.
- 3. Partekatu zure bidaia.** Partekatu zure bizitza, zarena eta sentitzen duzuna, egiten duzuna eta bidea partekatzen duzun beste pertsona batzuekin egiten duzuna.
- 4. Zure errukia elikatu.** Errukia handitu egiten da gainerakoei gertatzen zaiena axola zaizun neurrian, eta zaintzeko borondatea sentitzen duzunean. Jendea zaintzen badugu, aukera gehiago izango dute beren bizitzari ekin eta bidean jarri ahal izateko.
- 5. Egin bat gurekin! Boluntario izan edo ez izan....** Beste pertsona batzuei zerbitzu ematea, maitasun eta eskuzabaltasunaren izenean.
- 6. Parte hartu! Asko dago egiteko!** Aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira pertsona askok aldaketaren beharrezkoak ikusten dutenean. Aldaketa indibidual eta kolektiboak beharrezkoak dira aldaketarako. Denok parte hartu behar dugu.

7. **Errebisatu zure bizi-estiloa.** Iraunkorrago, solidarioago, osasungarriago eta espiritualagoa izateko.
8. **Keinu bakoitza garrantzitsua da.** Batzuetan, ekintza xume eta soilenak eraldaketaren oinarria dira.

OTOITZA

«Poz zaitetze eta alaitu» (Mt 5,12), esan zien beren kausagatik umiliatu eta jazarritako guztiei. Jaunak dena eskatzen du, eta eskaintzen duena benetako bizia da, gure xede izandako zorientasuna. Santu nahi gaitu, eta erabateko bizi-esperientzia izan dezagun nahi du. Bibliaren lehenengo orrietatik aipatzen da santutasunaren deia. Hala proposatu zion Jaunak Abrahami: «Ibili nire presentzian eta izan perfektua» (Gn 17,1).

(Frantzisko Aita Santua, Exh. Gaudete eta exultate Apostolikoa)

Abestia: Sois la sal. Luis Guitarra.

https://www.youtube.com/watch?v=oXWtWT_tEEg

“Zu zara, Bizitzaren Jainkoa, ogi bizia.
Lagun gaitzazu zugar sinesten
eta zure Proiektuaren arabera bizitzen.
Zure ikasle izan nahi dugu,
Erreinuko artisau
eta zure Kausaren lekuko, pobreenen alde.
Eman iezaguzu beti zure ogia,
zure pertsona, zure hitzak,
zure presentzia, zure Espiritua.
Karitatean indartsu izateko,
Jauna, eman beti zure ogia! Amen.”

"Pertsona saiatuak behar dira, zailtasunen aurrean bat egiten dutenak eta besteen zerbitzura jartzen direnak".